



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# BATZAR NAGUSIETAKO ERAKUSKETA ARETOAK ZERAMIKA ETA BUZTIN ERAKUSKETA BARRIA MOLDEAUKO DAU

- **EHUko Arte Ederretako Fakultadeko Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterreko hamahiru ikaslek, Carmen Marín komisarioaren berbetan “zeramika barrutik begiratzera eta lengoaia artistiko barrietan sartzen dala egiaztetara konbidatzen gaituen” piezek osatutako erakusketa kolektiboa aurkezten dabe.**
- **Azaroaren 30era arte egongo da zabalik uriaren erdian dagon Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura.**

(Bilbon, 2020ko azaroaren 9an). Azaroan zehar, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Arte Ederretako Fakultadeko Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterreko hamahiru ikaslek euren lanak erakutsiko ditue Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan, GEA (LURRA esan gura dauen berba grekoa) izeneko erakusketa kolektiboan. Erakusketak alkarrizketa iradokigarrian antolatuta dagozan eta buztinen muga bako aukeretan eta zeramikazko prozeduretan sakontzen daben hainbat proposamen pertsonal jasoten ditu. Protagonistak honeek dira: Gabriela Monge Zú, Manuela Olavarría, Nahia, Neus Pizà Segura, María Elena Benítez, Geraldine Lukacs, Celia Martín Román, Mara Ona, Natacha Jurberg, Miren Kareaga Perea, Javier Bravo de Rueda, Paula Martínez Sancho eta Laia Amigó Ayats. Guztiak be, Leioako campusean emoten dan gradu-osteko ikastaro espezializatu honetako zortzigarren promozinoko (2019-2020) kideak dira.

Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Mahaiko kideek, artisten ordezkariak zabalak eta Carmen Marín masterraren arduradun eta erakusketaren komisarioak lagunduta, azaro osoan Bizkaiko Batzarrek Bilbo erdian daukien erakusketa aretoan egongo dan erakusketea inaugurau dau. “Batzar Nagusiek EHUan emoten dan Zeramikazko Unibersidadeko Masterrren zortzigarren propozino honen erakusketea jasoten dabe. Protagonismoa, milaka urtetan gizakion adierazpide izan dan materialak dauka, zeramikak, eta material horren adierazkortasuna eta berezitasuna errebindiketan dau”, adierazo dau Otadui.

Sorkuntzaren ikuspuntutik, zeramikak, eskulturarako baliabide moduan, “artearen historiako ibilbide bizigarrienetako bat” marraztu dau, eta horretan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

oinarritzen dira egileak. “Buztina, bere prozesuak eta formak, dira erakusketa hau egituratzen daberen elementuak”, osatu dau Carmen Marín masterraren arduradun eta erakusketaren komisarioak.

Artista bakoitzak ohikoa eta apurtzailea dana miatu dau, ausazkoa eta aurreikusten dana, bere hiztegia aurkitu ahal izateko. Presentzia fisiko “indartsua” daukien eskulturako objektuetan, espazioan zehar zabaltzen diran instalazioetan edo ekintzak dokumentetan dituen ikus-entzunezko proiektzioetan gauzatzen diran norbanakoen poetikak, “zeramikea arte garaikidean guztiz integrata egotearen estatusa berretsiz”, esan dau Marinek.

Proposamenen artean, organikoa eta naturala aldarriketan daberen formak aurkituko doguz, “zeramikak, plano emozionalean, naturagaz lotuago egotearen aurrean, gauza funtzional moduan zibilizazioaren planoan dagola dinon idea tradizionalagaz kontrajarrita”. Eta baita imajinario kulturalera eroaten gaituen eta “kosmobisino hememonikoaren, sareen, hartu-emonen, dimentsinoen eta gizakiak planetan beteten dauen eskalaren ganeko gogoetea proponiduten deuskuen piezak edo oraindino konpondu barik dagozan gaiak lantzen dituenak”, laburbildu dau masterraren arduradunak.

Erakusketea, Bizkaian prestatutako talentu barriek egiten daberen lana Bizkaiko Batzarrek hainbat urtetan EHUko Arte Ederretako Fakultadeagaz daukien akordioaren barruan dago. Batzar Nagusiek uriaren erdian dagon espazioa lagatzen dabe, artisten lana Bizkaiko ikusleengana errazago heldu daiten. GEA erakusketea azaroaren 30era arte egongo da zabalik uriaren erdian dagon Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura. Sarrera libre izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA SALA DE EXPOSICIONES DE JUNTAS GENERALES MOLDEA UNA NUEVA MUESTRA DE CERÁMICA Y BARRO

- Trece alumnas y alumnos del Máster en Cerámica: Arte y Función, de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, presentan la muestra colectiva GEA, compuesta por piezas “que nos invitan a mirar la cerámica desde sus entrañas y a constatar su incorporación a nuevos lenguajes artísticos como la instalación, la acción o la participación”, según su comisaria Carmen Marín.
- Permanecerá abierta hasta el 30 de noviembre en la céntrica Sala de Exposiciones de la Cámara vizcaína (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes.

(Bilbao, a 9 de noviembre de 2020). Durante el mes de noviembre, 13 alumnos y alumnas del Máster en Cerámica: Arte y Función de la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) exponen sus trabajos en la sala de exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia en una muestra colectiva titulada GEA (vocablo griego que significa TIERRA). La exposición recoge una agrupación de propuestas personales dispuestas en sugerente diálogo, que indagan en las infinitas posibilidades de las arcillas y los procedimientos cerámicos. Sus protagonistas son: Gabriela Monge Zú, Manuela Olavarría, Nahia, Neus Pizà Segura, María Elena Benítez, Geraldine Lukacs, Celia Martín Román, Mara Ona, Natacha Jurberg, Miren Kareaga Perea, Javier Bravo de Rueda, Paula Martínez Sancho y Laia Amigó Ayats. Todos y todas son integrantes de la octava promoción (2019-2020) de este curso especializado de postgrado impartido en el campus de Leioa.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, acompañada de los y las integrantes de la Mesa, una amplia representación de los y las artistas, y la responsable del máster y comisaria de la exposición, Carmen Marín, han inaugurado la muestra que estará todo el mes de noviembre en la sala de exposiciones que la cámara vizcaína tiene en el centro de Bilbao. “Las Juntas Generales acoge esta exposición de la octava promoción del Máster Universitario en Cerámica que se imparte en la UPV/EHU, en la que el protagonismo está en un material que ha servido de expresión a la humanidad durante milenios, como es la cerámica, reivindicando la expresividad y la peculiaridad de este material”, ha explicado Otadui.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Desde el punto de vista creativo, la cerámica como medio escultórico ha trazado “uno de los recorridos más estimulantes en la historia del arte” y en él se fundamentan los autores. “La arcilla, sus procesos y sus formas constituyen el elemento que trama esta exposición”, ha completado Carmen Marín, responsable del máster y comisaria de la muestra.

Cada artista ha ido explorando lo convencional y lo rupturista, lo aleatorio y lo previsible, para encontrar un vocabulario propio. Poéticas individuales que cristalizan en objetos escultóricos de “rotunda” presencia física, en instalaciones que se despliegan por el espacio o en proyecciones audiovisuales que documentan acciones, “ratificando el estatus de lo cerámico como plenamente integrado en el arte contemporáneo” asegura Marín

Entre sus propuestas encontraremos formas que evocan lo orgánico y lo natural “como contraposición a la idea tradicional de la cerámica como perteneciente al plano civilizatorio, de artefacto funcional, frente al plano emocional, más vinculado a la naturaleza”. También piezas que nos remiten al imaginario cultural y “nos proponen una reflexión sobre la cosmovisión hegemónica, las redes, las relaciones, las dimensiones y la escala humana en el planeta; o abordan asuntos por resolver”, resume la responsable del máster.

La muestra forma parte del acuerdo que el Parlamento de Bizkaia mantiene desde hace años con la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para mostrar el trabajo de jóvenes talentos formados en Bizkaia. Las Juntas Generales ceden un céntrico espacio como forma para que su trabajo llegue más fácilmente al público vizcaíno. La exposición GEA permanecerá abierta hasta el 30 de noviembre en la céntrica Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes. La entrada es libre.